

# Unibertsaltasun infinitoa

Arteak badu, bere lengoia poetikoaren eta sinbolikoaren bitartez, errealitatea, egoerak eta gertakariak seinalatu eta lekukotzeko ahalmen hori. Arte garaikideak, zehazki, inguraten gaituen errealitateari heltzeko beste begirada batzuk eskaintzen dizkigu, belatuagoak eta sentikorragoak izan daitezkeenak; eta sortzen dituen irudi, artefaktu eta objektuen bitartez egun bizi dugun munduaren inguruan hausnarketak egiteko sarbideak eskaintzen

dizkigu, batzuetan, sarbide horiek zirrikitu estu eta kodifikatuak badira ere. Seinaleei adi egon behar gatzai, hori da kontua. Paisaia kultural garaikide honetan kokatzen da Kimia Kamvari artistaren lana, non iruditegi poetiko eta soil baten bitartez, bere lanak egungo klima aldaketak dakartzan ondorioetara edota Irango oldarraldietara hurbiltzen gaituen, obra itxuraz hauskor baina izatez irmo baten sakontzen.

 JONE ALAITZ URIARTE  MIKEL ESKAURIAZA

**K**imia Kamvari (Kolonía, Alemania, 1986) egun Beasaingo Astigarreta auzoan bizi den artista iraniarra da. Orain urte batzuk Teherango bizitza frenetikoa Astigarretako bizitza lasaigoagatik aldatu zuen, eta bi kokaleku horiek bere praktika artistikoa zeharkatzen dutela esan daiteke. 2015. urtetik Beasaingo landa auzo horretan bizi da, eta inguraten duen natura bere praktika artistikoaren motibo eta lan-tresna nagusi bilakatu da. Izan ere, marrazten, margotzen eta erretratatzen dituen gaiak –zuhaitzak, landareak, txokoak, txoriak– bizi dituen bazterretan aurkitzen ditu, eta natura hori erretratatzeko erabiltzen dituen materialak ere, sarritan, natura horretatik beratik eratorriko pigmentu, tindagai, ikatz-ziri edo paper begetalak izaten dira. Badago, beraz, zintzotasun eta elkarrekikotasun bat egiten duenaren eta egiteko modu horren artean. Eta hori jada bada asmo adierazpen irmoa.

Donostiako San Telmo Museoa, Artea Abian programaren baitan, *Alef* izenburua daraman bakarkako erakusketa ireki berri du. Izenburutik hasita, erakusketak badu bere baitan zabaltzen den unibertso iradokitzaile propioa: *Alef*, hebreerazko alfabetoaren lehen kontsonantea da, bizi-printzipioa da, aukera guztiak biltzen dituen energia.

*Álef* persiar alfabetoaren lehen letra ere bada, eta matematikan zenbaki infinituen kardinaltasuna irudikatzeko erabiltzen den ikurra da. Dena den, Borges-en ipuinagatik egingo zaigu ezagunen *Alef* kontzeptua. Idazle argentinarren *El Aleph* liburua unibertsoaren puntu mitikoa da Aleph, non ekintza guztiek eta garai guztiek (orainak, iraganak eta etorkizunak) puntu bera betetzen duten, gainjartzerik eta gardentasunik gabe. Hortik ondorioztatzen da Aleph, matematikan bezala, infinitua dela, eta ondorioz, unibertsoa irudikatzen duela. Egun bizi dugun egoera kritiko, zatikatu eta ia apokaliptiko honetan badirudi unibertsaltasun eta infinitu horien inguruan aritzeak gure zerumugak eta esperantzarako ateak irekitzen dituela, arnas pixka bat hartzeko besterik ez bada ere.

Erakusketa Museoko Laborategian dago ikusgai, eta espazioa konplikatua den arren –forma irregularreko azalera, bi altueratako sabaia, presentzia handia duen egurrezko zorua–, espazioa modu paregabean dago ebatzita. Hormetako panelak paretetatik atera eta egitura arkitektoniko trinko batean bilakatu ditu, forma laukiluzea duen egitura luzexka batean, espazio zentrala era diagonalean zatituz. Artistak elementu luzearen bi aurpegiak erabili ditu *Alef* erakusketa osatzen duten bi obra zentralak aur-

kezteko: *Burning Willow* (Zumea sutan, 2022) eta *Negative Landscape* (Paisaia negatiboa, 2019-2022). Azken hori, zuri-beltzean inprimatutako 73 argazkiz osaturiko instalazioa da. Argazkiek hormaren azalera ia erabat estaltzen dute eta horietan guztietan paisaia idor bat antzematen da, basamortua izen zitekeena baina ez dena, orografia irregular baten forma bihurri eta okertsuekin. Paisaia horietan ondo fijatuz gero, badago elementu errepikakor bat: lurra irentsi eta barrurantz hazten diren zulo handiak. Gero jakin izan dut geologian *dolina* izenaz ezagutzen direla naturan ematen diren istripu geologiko horiek. Argazkien azpiko aldean, dolina horien koordinadak daude idatziak, eta koordinada horiei segika, paisaia idor horiek Abarkuh, Kane Zenian eta Shiraz inguruak direla jakin dut, Irango hego-ekialdeko goi-lautadakoak.

Dolinak toki lehorretan gertatzen diren egoera geologikoak dira, atmosferan dagoen lehortearen eraginez; dolina bat, eraketa karstikoa den aldetik, harkaitza disolbatu delako edo kobazulo baten sabaia erori delako gertatzen da, forma zirkularreko eta tamaina desberdineko sakonuneak sortuz. Era berean, giza-kiak naturan izan duen esku-hartzearen ondorio ere badira, ibaien urak desbi-deratzeagatik edo lur azpian meategiak



egiteagatik sortzen direnak. Kamvari 2019. urtean hasi zen kamera esteno-peikoarekin Irango lautadan hutsune horiek erretratatzeko, mendi eta mui-noen negatiboak izan zitezkeen zulo eta krater itxurako forma horiek irudikatzen, fokoa jarriz lurtean zabaltzen ziren zauri horietan. Artearen tradizioan, hutsuneak, materialtasun faltak edo materialaren forma negatibo horiek, materialak bezain besteko garrantzia izan dute, eta batez ere eskulturan, tradizio handiko gaia izan da. 2019. urtean artistak Teherango Dastan Galleryn egin zuen bakarkako erakusketan erakutsi zituen serie horretako hogeina argazki *Event Horizont* (Gertaeren zerumuga) izenburupean. Lau urte hauetan argazki seriea ugalduz joan da, dolina horiek naturan egin duten antzera.

Aidin Keikhaee filosofoaren idatzi bat ere ekarri du Kamvarik aretora, eta bertan dolina hauek aldaketa klimatikoaren -beste- ondorio bat direla ematen du aditzera. Beste hainbatekin gertatzen ari den bezala -COVIDaren eta beste zenbait izurriteren eragina, katastrofe klimatikoaren inpaktu gero eta bortitzagoa-, geopolitikaren ondorio dela

iradokitzen du, eta horrek ere eragin eta ondorio ezberdinak dituela hego eta ipar hemisferioaren artean, kaltetunak beti ere globoaren behelaldean bizi direnak izanik. Hamadán-eko inguruan, Teheran hiriburutik 400 kilometrotara, orain gutxi arte abeltzaintzarako eta nekazaritzarako ziren eremu emankorrak basamortutze prozesuan daude, eta ondorioz gero eta gutxiago dira era duin batean bizitzeko geratzen diren aukerak. Apenas egiten du euririk, ura ondusun preziatua eta eskasa da azkenaldian, eta ondorioz, lurra barrurantz zabaltzen hasi da, eta jauzi horretan bizitzarako aukerak irensten ditu.

*Burning Willow* lanean ikatz-ziriz egindako dozenaka marrazki aurkituko ditugu, eta guztietan zuhaixka mota bera agertzen da marraztuta paper zuriaren gainean: zume negartia. Geure paisaian nahiko zuhaitz ezaguna bada ere, berez Mesopotamian du jatorria. Negartiaren adjektiboa datorkio bere adarrak lurre-rantz makurtzen direlako, forma bihurri eta tolestura ia ezinezkoetan; lurraren hezetasunaren bila doaz, uraren bila horiek ere, bizitzaren bizi printzipioa bilatu nahian. Zuhaitz hauek geure ba-

serri inguruetan ugariak dira, izan ere, adarretatik ateratako zumeekin saskiak eta otzarak egin zitezkeen, eta beren egurra baserriak berotzeko erregai gisa erabiltzen zen. Zume egurretik ikatz-ziria erauzi izan da, marrazketarako erabiltzen den arkatza, eta kasu hone-tan, Kamvarik marrazki guztiak egiteko erabili duen arkatz-organikoa izan da. Marrazki-instalazioaren parean tontor beltz bat aurkituko dugu, zume-negarti baten ikatz-zirizko hautsez egindako multzoa. Urez egarri den zuhaitza da zumea, artistak modu ezberdinetan erre-tratua ekarri diguna.

2022ko irailean poliziak Mahsa Amini ikaslea bortizki hil zuen hijab-a ondo jantzita ez zermalako. Gertakari horrek egun jarraitzen duten protestak abiarazi zituen, non milaka ikasle eta herritar emakumeen giza eskubideen alde borrokatzen ari diren. Kamvarik udazkeneko egun horietan sare sozialetan ikusi zituen irudi guzti horietatik bat hautatu eta marrazki eder bat egin du: ikasle talde bat Irango Errepublikan Islamikoaren aurka protestan. Atzean zume negarti bat dute. Hauek ere, bizitzaren alde borrokan, askatasun egarritz. ●